

# ASTIGARRAGA

## «Sagardotegiak gure herriko ezaugarria»

ASTIGARRAGA. DV  
J. ORMAZABAL

Bere garaian agindu bezela, gaurko honetan basera emango diogu Antton Arka Jaunak «Sagardotegiak gure herriko ezaugarria» izen buru duela aurkezturiko lanari. Horrela dio:

«Hasteko herritarrok jokutzen dugun paperari buruz, jarrera desberdin eta distanteak azaltzen ditugu.

Baloratzekoa da, herri mogimenduak Sagardo Etxea eraikitzeko daraman iniziativa eta kezka, baita ere, denok herrian gustora bizitzeko ahaleginak bultzatzea, baina ez noski, herritar bezala herriaren ospea hartu nahi eta berez, sortzen den giroarekiko ondorioak ixilarazi prepotentzi hutsez. Ez da zuzena ere, herrira hurbiltzen diren batzuen jokabidea elkar bizitze printzipioen aurrean. Elkarulertze behar da, ala jaina».

EL DIARIO VASCO.  
Viernes, 24 de abril de 1990